



## **SATSE, ELA, LAB, SME, CC00 ETA UGT SINDIKATUEK MANIFESTAZIOAK DEITU DITUZTE OTSAILAREN 25ERAKO, OSAKIDETZA DEFENDATZEKO ETA OSASUN PUBLIKOA DESEGITEAREN AURKA**

*Bilbon, Donostian eta Gasteizen eguerdiko 12:00etan egingo diren manifestazioetan parte hartzera deitzen diete langileei eta herritarrei*

Duela aste batzuk, Osakidetzan arazoak eta zailtasunak daudela aitortzen entzun genion Lehendakariari. Esan zuenez, gure osasun-sistema publikoa Jaurlaritzaren lehentasunetako bat izango da. Hitz horien itxura gorabehera, hilabete eskasera, eta herritarren aurrean agerikoa den errealitatea ezkutatzeko ahaleginean, Osakidetza ez dela ez desegiten ez privatizatzen ari adierazi du Lehendakariak, eta Sagardui Sailburuak ere ukatu egin du Osakidetzan murrizketak eta privatizazioak egiten ari direnik.

Errealitate bakarra da lan-prekarietateak gure osasun publikoaren arazo handienetakoa izaten jarraitzen duela: % 50etik gorako behin-behinekotasun-tasa; hamarkada batean % 20tik gorako erosahalten-galera; lan-gainkarga sistematikoa; plantilla urria; ordezkapenik eza eta lanpostu hutsak ez betetzea; lan-baldintzetan murrizketak, hala nola Garapen Profesionalean aplikatu nahi den murrizketa erradikal eta justifikaziorik gabea, etab.

Aldi berean, Deustuko, Zumarragako eta San Martingo PACetan eta Santiago Ospitaleko larrialdietan aplikatutako murrizketek eta Basurtuko bihotzeko kirurgia ixteko proiektuak aurrera jarraitzen dute. Gainera, oporraldietan etengabeak dira lehen mailako arretan ematen diren murrizketak. Osakidetzaren kategoria guztietan eta hiru lurraldeetan eragina duten egiturazko arazoen aurrean gaude.

Azpinarratu behar da Lehen Mailako Arretaren egoera bereziki prekarioa dela. Gogoan izan behar dugu kolektibo horrek 2019an ere egin zuela greba, garai hartan pairatzen zuten muturreko egoera salatzeke. Egoerak okerrera baino ez du egin hiru urte hauetan. Argi dago, gainera, Osakidetza sare bat den heinean, sailburuak behin eta berriro errepikatzen duen bezala, Lehen Mailako Arretaren egoera horrek eragin zuzena duela beste asistentzia-maila batzuetan, Ospitaleko Larrialdietan, besteak beste. Horrela, larrialdietan gero eta gainkarga handiagoa dago.

Bitartean, Mahai Sektoriala erabat blokeatuta dago. Osakidetzak ez du erabakitzeko ahalmenik, eta Osasun Sailak ez du sindikatuen aldarrikapenetako bakar bat ere aintzat hartu, eta ez die sindikatuen proposamenei erantzunik eman abenduaren 7ko bileraren ondoren. Gainera, Mahai Sektoriala erabili nahi du existitzen ez den negoziazio baten itxura emateko, uda aurretik bultzatutako mobilizazioei jaramonik egin gabe: langileen zein herritarren parte-hartze handia izan zuten manifestazio jendetsuak, eta lau greba egun.

Osasun Sailak gure osasun publikoa eraisteko bidean sakontzen duten erabakiak hartzen jarraitzen du. 2023ko ekitaldirako, Osasunera bideratutako aurrekontua 2022an benetan gastatutakoa baino 20 milioi euro txikiagoa da; badirudi, Eusko Jaurlaritzaren iritziz, 2023an iaz baino premia gutxiago dagoela. Gainera, ezabatu egin du COVIDetik eratorritako beharretara bideratutako partida. Baina, errefortzu ekonomiko hori ezabatzearekin batera, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuaren prekarizazioa pandemiaren ondorio zuzena dela argudiatu du.

Herritarrei eskaintzen zaien osasun-laguntza eskuratzeko gero eta zailagoa eta kalitate txarragokoa da. Lehen Mailako Arretako hitzorduek atzerapen handia dute, eta batzuetan ez dago bermatuta aurrez aurreko arreta; PACak ixteak edo horietako ordutegiak murrizteak joan-etorri luzeagoak egitera behartzen ditu pazienteak, eta horrek gero eta egoera delikatuagoan jartzen ditu kolektibo kalteberak; Ospitaleko Larrialdietako batez besteko itxaronaldia 5 ordukoa da, eta bi egunetara ere heltzen da artatu ondoren plantara eramateko epea; kanpo-kontsulta baterako zain dauden pazienteen kopurua 6gatik biderkatu da 6 urtetan; proba diagnostiko baten zain daudenena bikoiztu egin da 2019tik; eta kirurgiako itxaron zerrendak % 36 hazi dira hiru urtetan; Osakidetzak onartu du 11 hilabeteko atzerapena dagoela bularreko minbiziaren baheketetan, eta ebakuntza egiteko zain dauden eta minbizia duten pazienteek hilabete bat itxaron behar dutela.

Osasun-aseguru pribatuen kontratazioak gora egin izana Osakidetzaren eraispenaren ondorioetako bat da, zalantzarik gabe; izan ere, Bizkaian, esaterako, 3 herritarretik 1ek kontratatu dituzte.

Egoera horren aurrean, SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuek manifestazioak deitu dituzte otsailaren 25erako Bilbon, Gasteizen eta Donostian, Osakidetza defendatzeko eta osasun publikoa desegitearen aurka. Mobilizazioak 12:00etan abiatuko dira Jesusen Bihotzaren plazatik, Andre Maria Zuriaren plazatik eta Bulebarretik. Langileei, herritarrei eta gizarte mugimenduei guztion osasuna defendatzeko mobilizatzeraz dei egiten diegu.

Euskal Herrian, 2023ko otsailaren 10ean.



## **SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO Y UGT CONVOCAN MANIFESTACIONES EL PRÓXIMO 25 DE FEBRERO EN DEFENSA DE OSAKIDETZA Y CONTRA EL DESMANTELAMIENTO DE LA SANIDAD PÚBLICA**

*Hacen un llamamiento tanto a la plantilla como a la ciudadanía, a participar en las manifestaciones convocadas en Bilbo, Donostia y Gasteiz, que partirán a las 12 del mediodía.*

Hace unas semanas escuchábamos al Lehendakari reconocer problemas y dificultades en Osakidetza al tiempo que afirmaba, que nuestro sistema sanitario público será una de las prioridades de su Gobierno. A pesar de la apariencia de estas palabras, apenas un mes después, y en un intento de ocultar una realidad que es más que evidente a los ojos de la ciudadanía, el Lehendakari ha afirmado que Osakidetza ni se desmantela ni se privatiza, al tiempo que la Consejera Sagardui, también ha negado recortes y privatizaciones en Osakidetza.

La única realidad es que la precariedad laboral sigue siendo unos de los grandes problemas de nuestra sanidad pública: una tasa de temporalidad que supera el 50%; una pérdida de poder adquisitivo superior al 20% en una década; sobrecarga sistemática de trabajo; escasez de plantilla; falta de sustituciones y de cobertura de vacantes; recortes en condiciones laborales como el recorte radical e injustificado que se quiere aplicar en el Desarrollo Profesional, etc...

Paralelamente se mantienen recortes como los aplicados en los PACs de Deusto, Zumarraga o San Martín; ó en las urgencias del Hospital Santiago; así como el proyecto de cierre de cirugía cardíaca de Basurto. Además, los recortes en Atención Primaria son ya una constante en los periodos vacacionales. Estamos ante problemas estructurales que afectan a todas las categorías de Osakidetza y a los tres territorios.

Cabe subrayar que la situación de la Atención Primaria es especialmente precaria. Debemos recordar que este colectivo ya salió a la huelga en el año 2019 para denunciar la situación límite que padecían entonces. La situación no ha hecho más que empeorar en estos tres años. Es evidente, además, que en la medida que Osakidetza es una red, tal y como repite la Consejera de manera reiterada, esa situación de la Atención Primaria afecta directamente a otros niveles asistenciales como las Urgencias Hospitalarias, en las que cada vez existe una sobrecarga mayor.

Entre tanto, la Mesa Sectorial sigue totalmente bloqueada. Osakidetza no tiene capacidad de decisión y el Departamento de Salud no han atendido ni una sola de las reivindicaciones de la parte social y ni siquiera ha contestado a las propuestas de los sindicatos tras la reunión mantenida el 7 de diciembre. Pretende, además, utilizar la Mesa Sectorial para aparentar una negociación que no existe haciendo caso omiso a las movilizaciones impulsadas antes del verano: manifestaciones multitudinarias, secundadas masivamente tanto por la plantilla como por la ciudadanía, y cuatro jornadas de huelga.

El Departamento de Salud sigue tomando decisiones que ahondan en la senda del desmantelamiento de nuestra sanidad pública. Para el ejercicio 2023, el presupuesto dedicado a Sanidad es 20 millones de euros inferior a la cantidad efectivamente gastada en 2022; parece que, a ojos del Gobierno Vasco, este año 2023, las necesidades son menores que el año pasado. Además, ha eliminado la partida destinada a las necesidades derivadas del COVID. Pero, al tiempo que elimina ese refuerzo económico, alega que la precarización del servicio que se ofrece a la ciudadanía es consecuencia directa de la pandemia.

La asistencia sanitaria que se ofrece a la ciudadanía es cada vez menos accesible y de peor calidad. Las citas en Atención Primaria tienen una importante demora y en ocasiones no está garantizada la presencialidad; el cierre o la restricción de horarios de los PACs obliga a los y las pacientes a hacer mayores desplazamientos, lo que coloca a colectivos vulnerables en una situación cada vez más delicada; la espera media en las Urgencias Hospitalarias es de 5 horas y de hasta dos días para ingresar en planta tras ser atendido; el número de pacientes en espera para una consulta externa se ha multiplicado por 6 en 6 años; el de aquellos en espera de una prueba diagnóstica se ha duplicado desde 2019; y las listas de espera quirúrgicas han aumentado un 36% en tres años; Osakidetza ha reconocido hasta 11 meses de retraso en los cribados del cáncer de mama y un mes de espera para los pacientes con cáncer que deben ser operados.

Una de las consecuencias del desmantelamiento de Osakidetza es, sin duda, el aumento de la contratación de seguros privados de salud, que en casos como el de Bizkaia, alcanza ya a 1 de cada 3 ciudadanos.

Ante esta situación, los sindicatos SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO y UGT convocan manifestaciones en Bilbo, Gasteiz y Donostia para el próximo 25 de febrero en defensa de Osakidetza y contra del desmantelamiento de la sanidad pública. Las movilizaciones partirán a las 12 de la mañana desde el Sagrado Corazón, la Plaza de la Virgen Blanca y el Boulevard. Hacemos un llamamiento a la plantilla, a la ciudadanía y a los movimientos sociales y ciudadanos a movilizarse para defender la sanidad de todos y todas.

Euskal Herria, 10 de febrero de 2023.